

## **EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEAN IKERKETA ZIENTIFIKOA SUSTATZEKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA**

### **2024 DEIALDIA**

Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkeak urtero eskaintzen du laguntza bat, Geoparkean ikerketa zientifikoa sustatzeko.

Horrenbestez, eta 2024. urtean eman behar diren laguntzen deialdiaren oinarriak ezartzeko, zera xedatu da:

- 1) Zuzendaritza Batzordeak 2020ko urriaren 16an egindako bileran, kontratu baten bidez ikerkuntzarako laguntza bat ematea erabaki zen, gehienez 3.500 €-koa (zergak barne).
- 2) Laguntzak Geoparkearen 2024. urteko aurrekontuaren kargura emango dira.
- 3) Euskal Kostaldeko Geoparkean ikerketa zientifikoa sustatzeko laguntzen oinarri arautzaile hauek eta deialdi hau onestea.

### **LEHENA. LAGUNTZEN ONURADUNAK**

Pertsona fisiko eta juridikoen eskatu ahalko dute laguntza: elkarteak, legez eratuak, edo egindako lanaren fakturak egiteko ahalmena duten ikerketa-taldeak. Ez dira inola ere izango lan-kontratu bidez kontratatu beharreko pertsona fisikoak.

Eskatzaile bakoitzak gehienez ere bi ikerketa-proiektu aurkeztu ahal izango ditu.

### **BIGARRENA. LAGUNTZEN XEDEA**

Oinarri hauen xedea Geoparkeko natura- eta kultura-ondareari, eta, bereziki, ondare geologikoari buruzko ikerketa-lanak egiteko laguntzak emateko arauak ezartzea da. Lehenesten diren gaiak, geologiaz gain, honako hauek izango dira: ekologia, naturagune babestuak, historiaurrea, kultura-ondare ukiezina eta itsas ondarea.

## HIRUGARRENA. PROIEKTUEN IRAUPENA

Urtebeteko edo bi urteko iraupeneko proiektuak aurkeztu daitezke. Hala ere, proiektu guztiak Geoparkearen urteko aurrekontuen mende daude; beraz, kontratuak urte natural bakoitzeko egingo dira.

Proiektuen urte bakoitzeko emaitzak azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira.

## LAUGARRENA. EPEA ETA AURKEZTEKO FORMATUA

1. Eskabideak 2024ko Urtarrilak 30a baino lehen aurkeztu behar dira. Eskabidea aurkezteko, [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) web-orrian deskargatzeko prestatuta dagoen inprimakia bete, eta eskatutako dokumentazioarekin batera [flysch@gipuzkoa.eus](mailto:flysch@gipuzkoa.eus) helbidera bidali behar da; eta paperean, helbide honetara:

Geoparkea  
Debako turismo bulegoa.  
Ifar kalea, 4  
20820 Deba

## BOSGARRENA. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA FAKTURAZIOA

1) Laguntzen gehieneko zenbatekoa hau da: 3.500,00 € (zergak barne). Zenbatekoa bi zati berdinetan ordainduko da:

- Lehenbiziko ordainketa (% 50) 2024ko otsailan, onuradunak lana ezarritako epean eta proposatutako baldintzetan entregatuko duelako konpromisoa bere gain hartu ondoren.
- Bigarrena ordainketa (% 50) proiektua entregatzen duenean (2024ko azaroaren 15a baino lehen, betiere) eta Geoparkeak onartu ondoren.
- Ikerkerta bukatu ahal izateko bigarren ordainketa aurreratzea beharrezkoa balitz Irailak 30 baino lehen egin behar da eskaera.

2) Laguntza kobratzeko, faktura helbide honetara igorri behar da:

Geogarapen, Euskal Kostaldeko Geoparkearen kudeaketarako elkarte.  
Ifar Kalea, 20820 Deba IFK: G 75018705

3) Laguntza kontratu bidezkoa izango da, eta BEZa eta PFEZa ordaindu beharko dira – ez dago salbuetsita–, eta dagokion atxikipena izango du, ez baita betetzen Ikerlarien Estatutuko Ikerketarako Laguntzen Programen Erregistro Nagusian inskribatuta egotearen baldintza.

## SEIGARRENA. ENTREGATU BEHARREKOAK

- Lanaren emaitzak memoria batean entregatu behar dira, azaroaren 30a baino lehen.
- Memoriaren kopia digital bat eta papereko kopia bat entregatu behar dira.
- Memoriak, halaber, lanaren emaitzak balioan jartzeko proposamena jaso beharko du.
- Memoria euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez entregatu ahal izango da.

## ZAZPIGARRENA. ESLEIPENA ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Aholkularitza Batzorde Zientifikoaren ordezkari batek, zuzendaritza zientifikoak eta Geoparkearen gerentziak baloratuko dituzte aurkeztutako eskaerak, eta Geograpen elkarteko Zuzendaritza Batzordeari helaraziko dizkio, urtea amaitu baino lehen onets ditzan.

Honako hauek baloratuko dira bereziki:

1. GAIA (25 puntu). Geoparkearen lan ildo eta intereseko diren gaiekin bat etortzea.
2. LAN TALDEA (25 puntu). Lantaldearen esperientzia zientifikoa eta Geoparkeaz duen ezagutza
3. METODOLOGIA ETA EMAITZA ZIENTIFIKOAK (20 puntu). Lana egiteko proposatutako metodologia eta espero diren emaitza zientifikoak ( argitalpenak, datuak, mapak...)
4. DIBULGAZIOA (30 puntu). Emaitzek Geoparkearen interpretazio-diskurtsoan duten baliagarritasuna, eta lanaren emaitzak ezagutzera emateko proposamena.

## ZORTZIGARRENA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradunek baldintza hauek bete behar dituzte ezinbestean:

1. Emandako laguntza eta laguntza emateak berekin dakartzan baldintzak onartzea, kontratua sinatzean urtarrilean.

2. Egindako ikerketarekin zerikusia duen argitalpen orotan adieraztea Euskal Kostaldeko UNESCOren Geoparkearen laguntza.
3. Lehenbiziko 3 hilabeteetan lanaren garapenari buruzko txosten partzial bat entregatzea, eta amaierako memoria azaroaren 15a baino lehen entregatzea, 6. oinarrian xedatutakoari jarraituz.
4. Kontratututako lana ustiatzeko eskubideen gaineko lagapen ez-esklusiboa emango dio Geoparkeari. Lan horiek editatu eta erabili ahal izango ditu, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
5. Geoparkeak antolatutako dibulgaziozko jarduera batean parte hartzea (hitzaldia, txangoa, tailerra...) hurrengo bi urteetan, eta ikerketaren emaitzetatik sor daitezkeen material hezitzaileei buruzko aholkuak ematea Geoparkeari.

## **BEDERATZIGARRENA. LAGUNTZA DEUSEZTATZEA ETA ITZULTZEA**

Laguntza deuseztatu egingo da eta jasotako zenbatekoak itzuli egingo dira, honako egoera hauek suertatuz gero:

- Eskatutako baldintzetan akatsak egotea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- Laguntzaren xedea ez betetzea eta laguntza emateak dakartzan baldintzak ez betetzea.
- Zortzigarren oinarrian xedatutako betebeharrak ez betetzea.

## **HAMARGARRENA. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA**

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, entitate eskatzaileak onespena eman eta adierazi du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oso-osorik onartzen dituela.

Horrezaz gain, adierazi du eskabidean adierazitako datu pertsonalak bere baimenarekin jaso direla, eta onartzen duela datu horiei tratamendu automatizatua ematea, eta baimena ematen duela datu horiek udal-kudeaketara soilik mugatzeko, bai eta datu horiek beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeei laga edo jakinarazi ahal izateko ere, baldin eta Datu Pertsonalen Babeserako Erregelamendu Orokorrak, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679/EE zuzentarauak, 6.1.e artikuluan jasotako baldintza betetzen bada, eta hari jarraituz.

## HAMAIKAGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (2003/11/18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala), eta 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (2006/07/25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala), baina honako hauetarako soilik: kudeaketa-printzipioak eta informazio-printzipioak (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 20. artikuluan daude jasota), eta hori guztia lege beraren 3.2 artikuluaen bigarren paragrafoan xedatutakoaren harira.

Hori alde batera utzita, oinarri hauek legezko testu horietara espresuki jotzen dutenean soilik aplikatuko dira bi lege horiek (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena).